

**2024KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

BERTARATUAK

Olaia Nieto Legarra
Mikel Iturbe Saizar
Idoia Garayalde Goicoechea
Noelia Lataburu Ortiz
Ioritz Lazcano Aranalde
Gorka Sagarna Larrañaga
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Begoña Tolosa Mendia

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2024ko otsailaren 27an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

Udalbatza audio sistema bidez grabatua izan da, grabaziotik ateratako fitxategi bat dago, idazkariak idatzitako aktarekin batera joango dena.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2023-12-05eko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

*2024-01-30eko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO URTARRILAREN 25ETIK 2024KO OTSAILAREN 15ERA (2024/33 - 2024/60).

Alkatetzak 2024ko urtarrilaren 25etik 2024ko otsailaren 15era bitartean (2024/33 - 2024/60) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- IRURAKO UDALA ETA AMETSA PILOTA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, azkeneko kultura batzordeak, 2024ko otsailaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zela eta jarraian aurten txertatutako aldaketak aipatu ditu:

-Alde batetik, 1go klausulan jaso dutela, hemendik aurrera 9urtetik aurrerako haur eta gazteak izatea xare eskolak jasoko dituztenak.

-Beste aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen du klub.ak haur eta nerabeak babesteko protokolo bat izan behar dutela eta horretarako elkarteak, ordezkari bat izendatu behar duela.

AMETSA PILOTA ELKARTEAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2024ko Otsailaren 28an

BILDURIK

Alde batetik, Mikel Uzkudun Olano 15.909555H N.A.N zenbakiarekin eta G20416079 Identifikazio Fiskaleko zenbakia duen Ametsa Pilota Elkarteko ordezkaria, Zilar kalea z/g Irura herrian helbidea duena, aurrerantzean APEL deituko dena

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

AURREKARIAK

Lehena.- Iruran Ametsa Trinketea eraiki zen, xare kirola herrian erroturik zegoelako eta herritarrek, kirolaz haratago kultur ondare ez-materializat hartzen dutelako xare jokoa.

Hori dela eta, ondarea kontserbatzea udal erakundearen zeregina delakoan, udal honek, ondare hori ondorengo herritarrei galdu gabe helarazteko asmoarekin, herriko haurrek xarez jolasten ikastea bermatu nahi du.

Bigarrena.- Badira urte batzuk, Ametsa Pilota Elkarteak, xareko eskolak ematen dizkiela herriko haur eta gazteei, Ametsa trinketean urritik ekainerako ikasturte osoan zehar.

Hirugarrena.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17.1 artikulua arabera, udalerrien eskumen propioen artean hau dago: "kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea".

Laugarrena.- Mikel Uzkudun Olanok adierazten du betetzen dutela, bai berak eta Ametsa Pilota Elkarteak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 3872003 Lege Orokorraren 13.Artikuluan xedatutako baldintzak.

Bostgarrena.- Honako hitzarmen hau, Irurako Udalak urtarrilaren 30eko osoko bilkuran onartuko du.

Hori dela eta, bi aldeek, honako hitzarmen hau onartzea adosten dute, bere baitan ondorengo

klausulak dituelarik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Ametsa Pilota Elkartek, (aurrerantzean APEL) konpromisoa hartzen du 2023-2024 ikasturtean xare eskolak emateko, hala eskatzen duten eta Irurako udalerrri honetan bizi diren 9 urtetik gorako haur eta gazteei. Ekintza hori burutzeko behar diren kirol-begiraleak izendatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza-bideak ere bere gain hartu beharko dituelarik.

BIGARRENA.- Hitzarmena izenpetzen da ikasturte baterako, alegia, 2023ko urriaren 9tik 2024ko ekainaren 14a arte.

HIRUGARRENA.- Udal honek xare eskolek eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko 6.000€ emango dizkio APEL-i.

LAUGARRENA.- Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70a ordainduko dio APEL-i ikasturtea hasitakoan eta gainerako %30a, ikasturteko gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan, beti ere 2024ko urria baino lehen, diru-laguntza gutziz likidatua egon behar baitu berri bat eskatu ahal izateko.

BOSTGARRENA.- APEL-k ikasturte amaieran, parte-hartze ziurtagiria igorriko die 2023-2024 ikasturtean xare eskolak jasotzen aritutako ikasle guztiei.

SEIGARRENA.- APEL-k, trinketean xare partidak ikusteko aukera bermatzeko, gutxienez txapelketa bat antolatuko du ikasturtean zehar eta horretarako udalarekin hitzarmen berezia izenpetu beharko du elkarlanerako eta finantzaketarako.

ZAZPIGARRENA.- APEL-k, udalari jakinarazi beharko dio xare-eskoletarako ohiko ordutegitik kanpora trinketeko instalazioak erabili behar dituenean.

ZORTZIGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK: APEL-k, udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du. Beraz, eskolak ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatu ditu. Eskolak eman ahal izateko herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskara hutsez emango ditu ezagutzera. Salbuespen modura, ele bietan argitaratu ahal izango ditu, betiere, euskara lehenetsita eta udalak alde aurretik adostasuna emanda. Ametsa Pilota Elkarteko ordezkariak udalakoekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte.

BEDERATZIGARRENA.- Halaber, bete beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak eta haien artean:

APEL-k, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Ikastaroa sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiritako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea entrenatzeko eta partidak jokatzeko sexuaren araberako bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

-ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

HAMARGARRENA.- Udal honek APEL-i lagako dizkio, trinketeko kantxa, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, beheko solairuan dagoen armairua biltegi modura erabiltzeko eta bigarren solairuan dagoen bulegoa, bere ekipamenduekin, adierazitako ekintza burutzen duen bitartean.

HAMAIKAGARRENA.- APEL-k xare-eskolak dituen ordu berean, udal honek trinketeko kantxa beharko balu, kultura edo kirol programazioko ekintza bat burutzeko, APEL-i jakinarazi beharko dio alde zuzenetik eta ordu horretako xare-eskola beste ordu batean emango da.

HAMABIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria.
- a) Legearen 13. Artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- b) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.
- c) Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.
- d) Jardueraren memoria ikasturte osokoa, gastu eta sarreraren likidazioa eta gastuak egiaztatzeko dokumentazioa.
- e) Xare eskolak emateaz arduratzen diren irakasle guztien natura sexuarekiko delituen ziurtagiri gaurkotua (<https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/eu/tramites/certificado-registro-central>).
- f) APEL-EN Haur eta nerabeak babesteko protokoloa eta hau betearazteko ordezkariaren izendapena.

HAMAHIRUGARRENA.- APEL-k ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du, eta badagokio, kontuan harturik zertan ez den betetzen eta hitzarmen honen xedea zein den, udalari guztia edo zati bat itzuli beharko dio.

HAMALAU GARRENA.- Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Irurako Udaleko diru-laguntzei buruzko udal ordenantza bete behar dira.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat APEL-i ematen zaiolarik, bestea gorporazio honek jasoz, guztiaren berri nik, idazkariak fede ematen dudalarik, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO A

AMETSA PILOTA ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

Kultura teknikaria
(Alex Lasa)

O.E.

(Idoia Garaialde)
Kultura batzordeburua

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

4.- UDAL IRURAKO UDALA ETA IRURAKO IKASTOLAREN ARTEKO GU ERE BERTSOTAN EKIMENA BIDERATZEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2023-2024 IKASTURTEA)

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du azkeneko kultura batzordeak, 2024ko otsailaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuela eta urtero eskaintzen den zerbitzua dela Gu ere bertsotan ekimena Anoeta eta Irurako ikastoletan eskaintzen dela eta gastua erdi bana izaten dela.

2023-2024 IKASTURTEKO HITZARMENA, IRURAKO UDALAREN ETA IRURAKO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKOA, GU ERE BERTSOTAN EKIMENA BIDERATZEKO

Iruran, 2024ko sinadura elektronikoaren egunean.

ELKARTURIK

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, NAN: 44142319Y, Irurako Udaleko alkatea, Udaleko idazkari Irantzu Arrizabalaga Gainzak lagunduta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2 i) artikulua araberara, fede publikoa emateko.

Eta bestetik, Lorena Alonso Aramendi, NAN: 72449182X, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteko zuzendaria (IFZ: F20086583; helbidea: Zillar kalea 4 -20271 Irura).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin bat etorrita, eta horretarako behar bezala ahalmenak, 2024ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran.

Bigarrenak, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteko ordezkari gisa (aurrerantzean Irurako Ikastola), dagokion ahalordetze-agiriaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE:

I.- Irurako Ikastolak herriko haur eta gaztetxoek garapenean eragiten duen "Gu ere bertsotan" proiektuan parte hartzen duela, Gipuzkoako eta Euskal Herriko hainbat eta hainbat ikastetxe bezala. "Gu ere bertsotan", ikastetxeetan, ikas orduetan euskal bertsolaritza lantzeko proiektua dela, oinarri pedagogikoa duena. "Gu ere bertsotan" proiektuan, bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batetik planteatuta, 4 arlo lantzen direla: Hizkuntza (euskara), Kultura, Musika (ahotsa) eta Trebetasun Pertsonalak eta Sozialak. Euskarazko ahozko komunikazioa lantzea dela proiektu honen helburua, horretarako bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz. Bertsolaritzak hizkuntza normalkuntzan lagun dezakeela, hizkuntzari haurren eta gazteen aurrean prestigioa eman eta erabiltzeko motibazio pizgarri izan daitekeelako. Bertsolaritzaren bidez, haurren hizkuntza gaitasunean eragitea lortu nahi dela, bereziki ahozko komunikazioarekin. Gainera, bertsogintzak ekarpen interesgarriak egin diezazkiokeela hezkuntzari: ahozko adierazpidea hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrak baliaraztea, hizkuntza aldetiko sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztopoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea, komunikatzaile onak hezteak...

II.- Irurako Ikastolak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Irurako Ikastolako ordezkariak adierazten duela berak eta elkarteak, Irurako Udaleko dirulaguntza

eskatzeari begira eta onuradun izaera lortzeko, betetzen dituela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak.

IV.- Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin ekimen hau eraman dezakeela aurrera Irurako Ikastolak, herriko haur eta gaztetxoek garapena eta ahozko komunikazioaren lanketa sustatzeko.

V.- Irurako Udalak bat egiten duela Ikastolak proiektu honekin dituen helburuekin, herriko haur eta gaztetxoek garapena eta ahozko komunikazioaren lanketa sustatzea udalerrientzat onuragarria delako.

VI.- Beste aldetik, 2/2016 Legearen 7. artikularen arabera (apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) udalek eskumen propio gisa dutela beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

VII.- Aipatu den 38/2003 Legearen 22.2 artikularen arabera, dirulaguntza hau zuzenean emango dela, Irurako Udalen 2024ko Aurrekontuan izenez aurreikusita dagoenez.

VIII.- Irurako Udalak 2024ko otsailaren 27ko ohiko Osoko Bilkuran onartu duela hitzarmen hau egitea. Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Irurako Udala eta Irurako Ikastola elkarlanean aritzea, Iruran "Gu ere bertotan" euskal bertsolaritza lantzeko proiektua bideratzeko, haurren hizkuntza gaitasunean eragiteko asmoz, bereziki ahozketasunean.

Bigarrena: Entitate onuradunaren konpromisoa.

Irurako Ikastolak "Gu ere bertotan" ekimena eramango du aurrera 2023-2024 ikasturtean, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen eskutik, aurrez azaldutako helburuak betetzeko.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziaketa.

Hitzarmen honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko, ekimen lerro hauek garatuko ditu:

Diru ekarpen zuzena. Herritar guztiontzako interesgarriak diren helburuak betetzeko eta proposatutako ekimena burutzeko, hitzarmen hau 2023-2024 ikasturtekoa izango da. Hori gauzatzeko 4.500 euro emango dizkio Udalak Irurako Ikastolari, 2024. urteko udal-aurrekontuko partida honen kontura:

- 1.0000.481.335.00.51 2024 Dirulaguntza hitzartua: Gu ere Bertotan, Irurako Ikastola.

Dirulaguntza horrek finantzatuko du defizit-kopuruaren %100.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2024ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagungarri izango diren gastuak, diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak direnak, eta hitzarmena onartutako ikasturtearen barruan sortzen direnak.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzako gastuen justifikazio dokumentuak osatu eta Irurako Udalean aurkeztu beharko dira. Ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Ekimenaren balorazio-txostena. Txosten honen bitartez diruz lagundu den ekimena egin dela eta helburuak bete direla ziurtatuko da.
2. Diruz lagundutako ekimenaren gastuen eta diru-sarreraren balantzea. Balantze honekin gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatu beharko da.
3. Gastuen dokumentuen kopiak. Aurkeztutako fakturen arabera doituko da dirulaguntza.
4. Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko ekainaren 30ean amaituko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Hitzarmen honen hirugarren klausulan zehaztutako dirulaguntza-kopuruaren %70 jasoko du Irurako Ikastolak hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean. Dena dela, hitzarmena sinatu aurretik honako agiri hauek aurkeztuta izan beharko ditu:

1. Urteko jarduerarako instantzia (eskaera), entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.
2. Dirulaguntzaren eskatzailea den entitate onuradunaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiria.
3. Entitate onuradunaren ordezkari-tza egiaztatzen duen agiria (hitzarmena sinatu behar duen pertsona entitateko ordezkari dela egiaztatzen duena).
4. Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako eta ekitaldi ekonomiko beraren barruan beste erakunde batzuei eskatutako edo eskatuko zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde emailea adierazita, edo, halakorik ez badago, dirulaguntzarik jaso ez duela eta eskatu ez duela egiaztatzen duena.
5. Finantzatzen diren jardueren proiektu xehatua.
6. Programatutako jardueren aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena adierazita.
7. Entitate onuradunaren kontu korronteko titulartasunaren agiria.

Edozein gisara ere, Udalaren diru-ekarpina jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak likidatuta egon beharko du.

Dirulaguntzaren %30 jasoko du Irurako Ikastolak hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako epean eta seigarren klausulan ezarritako justifikazio dokumentuak aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.

Laugarrena: Euskararen erabilpena.

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak eta Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak Udalarai aitortzen dizkion eskumenak eta betebeharrak kontuan hartuz, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

- 18 urtez beherakoentzat antolatutako jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu, partidu, jaialdi eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
 - Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera.
 - Idatzizko komunikazioetan, publizitatea barne (kartelak, esku-orriak, sarrerak, gonbidapenak, gutunak, oharrrak, sare sozialak...) ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
 - Testu elebidunetan, hala badagokio, euskara lehenetsiko da, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik. Hau da, euskarazko testua gaztelaniazkoaren gainean ala ezkerrean joango da, eta letra handiagoa eta/edo lodiagoa erabiliz idatziko da.
 - Ahozko komunikazioetan, publizitatea barne (aurkezleak, hizlariak, irakasleak, monitoreak, entrenatzaileak, bozgorailuetako mezuak, irratia, telebista, musika...), ezinbestekoa izango da euskara erabiltzea.
- Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Ahozko erabilera horretan, mezua bozgorailuetatik errepikatu behar denean, euskaraz, gutxienez, gaztelaniaz baino bi aldiz gehiago errepikatuko da, eta aurkezpenetan, hitzaldietan, ekitaldietan..., euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik egingo da.
- Entitate onuradunek beren eguneroko jardunean euskararen normalizazioan sakontzen joateko, urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
 - Entitate onuradunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Bosgarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango honako hauek:

- Pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukeraberdtasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.

- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizkeriaren bat egiten duten elkarteak.

Beraz, erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipioak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera egingo du dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduera sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatuko du.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatuko ditu proiektuetan.
- Proiektu eta memorieta sexuagatik banandutako datuak erabiliko ditu.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

Seigarrena: Ingurumen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamahirugarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen jarraipena egingo dute Irurako Udaleko eta Irurako Ikastolako ordezkariak. Jarraipen-batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hamalagarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamabosgarrena: Onuradunen betebeharrak.

38/2003 Legearen 14. artikuluan aipatutako onuradunen betebeharrak bete beharko ditu erakunde onuradunak. Eta baita, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorritzen den guztiari dagokienez.

Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, aipatutako azaroaren 17ko 38/2003 Legea bete behar da, eta Dirulaguntzei buruzko Irurako Udal Ordenantza.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

Hamazortzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Irurako Udalari behar diren datuak zuzenean eskura ditzan, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik, hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

Nire aurrean,

IRURAKO UDALEKO IDAZKARIA
Irantzu Arrizabalaga Gainza

Kultura teknikaria
(Alex Lasa)

O.E.

(Idoia Garaialde)
Kultura batzordeburua

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

5.- IRURAKO UDALA ETA IRURA BIZI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Kultura batzordeak, 2024ko otsailaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuela eta egongo den aldaketa bakarra egoitza sozialarena izango dela, lehen trinketea eta orain eragileen txokoa deritzona izango dela. Halaber, dirulaguntzaren epealdia 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte izango da eta ez proposamenean azaltzen den martxotik martxorako epea.

IRURAKO UDALA ETA IRURA BIZI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2024ko otsailaren 28an

SINATZAILEAK

Alde batetik, GOIZARGI ORUESAGASTI OTAÑO adinez nagusia, 72474426-T nortasun agiria duena, Iruran, paper kalea 2, 1. eskubian helbideratua eta G75237818 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Bizi Elkartearen izenean. (Estatutu hauek kontratu honi eranstean zaizkio 1. Zenbakiarekin)

Bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun nahikoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Bizi Elkarteak hitzarmen honen diru ekarpenarekin, herritarren arteko harremanak sendotzeko hainbat ekintza eramango ditu aurrera, helburu hauekin

Lehena.- Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herri-

giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako herri-giroa sustatzeko eta harremanak sendotzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2024ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkurak onartu du.

Irurako Udalbatza Plenoak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluaren 12. Atalean, Dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen dira, Herri-Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedaturikoaren arabera.

Laugarrena.- Goizargi Oruesagasti andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzeko duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bosgarrena.- Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek laga ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

-lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua.

Aurrez adierazitakoa, eta bi aldeen arteko lankidetzaren udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Bizi Elkartek erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea da Irura Bizi Elkartek hainbat ekintza eramatea aurrera 2024 urtean, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
	-Otsailak 1: elkarteko bile- ra orokorra.	-

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
Kirol Astearen barruan: - Bizikleta jarduerak. - Skate ikastaroa. - Apirila-ekaina: helduentzako plazako dantzen ikastaroa.	- Maiatzak 12? (Ikastolaren Egunaren biharamunean): txori-kanten ikastaroa. -Maiatzaren 21 inguruan: Kultur aniztasunaren astea.	- Ekainak 3: gaueko familia irteera Loatzora. -Ekainak 23: San Juan bezperako barrikotea. Udalarekin elkarlanean. Helduen plazako dantzen emanaldia.	-Uztailak 1: Uzta festa. Bazkaria eta musika.
IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA

-Irailak 29: Uda-ko postal lehiaketako sari-banaketa.	- Urriak 22: ardo-dastaleta eta 2.eskuko azoka -Urriak 31: Arimen Gaua.Ikastola, Ludoteka eta den-da/tabernekin elkarlanean.	- Abentura astea.	-Bertso-babarrun bazkaria. Gazte Alaiak elkartearekin elkarlanean. -2024ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Sari-banaketa abenduaren 24an.
Sortu daitezken beste kultur ekitaldi batzuk			

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra, hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea da. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

- Irura Bizi elkartearen betebeharrak:
 - ▶ Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
 - ▶ Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
 - ▶ Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesa jasotzen duela adieraziko du.
 - ▶ Udalarekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.
 - ▶ Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuritzea.
- Irurako Udalaren betebeharrak:
 - ◀ Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
 - ◀ Irura Bizirekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 5.500 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Bizi Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:
2024ko udalaren aurrekontuaren partida: 1 0000.481.334.00.00 2024 (1380).

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Bizi Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2025ko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2024ko ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, eta udalak diru-laguntzaren zuriaketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Bizik Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du, printzipio

hauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.

Irura Bizi Elkarteak ordezkariek Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan-hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorietan sexuagatik bereizitako datuak erabiltzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin-frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindikoa zaratarik ez sortzea eta herri-tarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen- irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKARIOZ ZEDITUKO DUEN LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

- Irura Bizi elkarteak, Udalaren jabetzako eraikin batean izango du bere egoitza fiskala. Egoitza hori San Migel Plaza 6an izango da, haurreskola gaineko erabilera anitzeko lokalean, eragileen txokoa deiturikoan, udalak eta elkarteak adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko.
- Udalak aipatutako espazio hori Irura Bizi Elkarteari doan lagatuko dio bere erabilpenerako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.
- Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguruia eta alarma.
- Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Onintza Abesbatza Elkarteak beste eragileekin batera erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.
- Irura bizi Elkarteak lokalak utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.
- Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.

- Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten elkarrekin bere gain hartuko dute.
- Hitzarmena, ezein indemnizazio-kopurutarako eskubiderik gabe bukatuko da.

ZORTZIGARRENA.- Irura Bizi elkarteari eta Irurako udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztatzea.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA .- Irura Bizik ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek, bere horretan eusten diete beren ahalmenei, eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2024ko martxoaren 31tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasunaren seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATEA

IRURA BIZI ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

Kultura teknikaria
(Alex Lasa)

O.E.

(Idoia Garaialde)
Kultura batzordeburua

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

6.- IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZ ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Berdintasun batzordean tratatu zela gaia, baina Begoña zinegotzia ez zela bertaratu beraz diktaminatu gabeko gaia denez, gaia tratatzeko bozketa egin behar dela, **BOZKETA.- Gaia tratatzearen proposamena AHO BATEZ ONARTU DA.**

Irura Moretuz talde feministak ere 2024rako ekintza plana aurkeztu du.

Berdintasun batzordeak, 2024ko otsailaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu du:

"IRURA MORETUZ ELKARTEARI 2024KO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ONARTZEKO PROPOSAMENA"

2024ko urtarrilaren 29an Irura Moretuz elkarteak, diru laguntza eskaera egin zuen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako elkargune izateko eta hainbat ekimen antolatzeke.

Eskaera horretan, elkarteak ez zuen diru kopurunik zehaztu, baina 2024ko berdintasun sailaren aurrekontua egiterakoan, udalak 3.000€ gorde zituen elkarte honek antolatutako ekintzak finantzatzeko, oraingo kasuan bezala.

Berdintasun batzordean gaia aztertu da, baina Begoña Tolosa, EAJ-ko ordezkaria ez da bertan egon.

Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:

1.- Irura moretuz hitzarmenaren gaia tratatzea eta ondoren hitzarmena onartzen den edo ez bozkatzea.

2.- 2024ko aurrekontuko 1 0000.480.230.00.10 partidako eta Irurako Dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dagoen bezala (2022-2024) 3.000€ak Irura Moretuz elkarteari diru laguntza emateko bideratzea, aipatutako zenbatekoaren %70 hitzarmena izenpetutakoan eta gainerako %30 gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan ordainduz.

Irura, 2024ko otsailaren 21ean

Berdintasun idazkaria

**O.E.
Berdintasuneko batzordeburua**

IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZ ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2024ko martxoaren Xan.

SINATZAILEAK

Alde batetik, MARIA BEGOÑA VAZQUEZ MARIN adinez nagusia, 35778063E nortasun agiria duena, Iruran, etxezarreta kalea 11, p01. eskubian helbideratua eta G09803875 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako Elkartearen izenean.(. Estatutu hauek kontratu honi erantzen zaizkio 1. Zenbakiarekin).

Bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun nahikoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako Elkarteak hitzarmen honen diru ekarpenarekin emakumeen ahalduntzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak garatuko dituela helburu hauekin:

Lehena.- Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2024ko otsailaren 27an egin zen Osoko Bilkuran onartu zen.

Irurako Udalbatza Plenoak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapitulua 12. Atalean, Dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen dira, Herri-Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedaturikoaren arabera.

Laugarrena.- Maria Begoña Vazquez andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzeko duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bostgarrena.- Bestaldetik, Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua

Aurrez adierazitakoa eta bi aldeek arteko lankidetzaren udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Moretuz Elkarteak erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea: Irura Moretuz Elkarteak hainbat ekintza eramango ditu aurrera 2024 urtean, emakumeen ahalduntzerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko.

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
-2024rako ekitaldi nagusienak aurreikusteko talde eragilearen bilera.	-Irurako Ostaturia martxan jartzean, "Irakurketafeministarako txoko morea" ekimena abiaraziko dugu. -Martxoaren 8ko ekintzak	-M8ko ekitaldiak aurrera eramatea -Korrika-ri lotutako ekintzen antolaketan parte hartuko dugu eta kilometro baten erosketan parte hartuko dugu.

	antolatze bilerak irekia egingo dugu.	
--	---------------------------------------	--

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
-Kirol astean, apirilaren 11an, Sara Majarenas Ibarreta fisioterapeutak, zoru pelbikoa zaintzeko eta errekuuperatzen laguntzeko tailerra eskainiko du.	- LGTBI egunerako ekintzak.	- Urtarriletik ekainera bitartean egindako ekintzen balorazioa eta urtea amaitu bitartek ekintzen errepaso.	-Herriko beste eragileekin batera, Uzta Giro festan antolaketan laguntzea

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
-Herriko jaietan Irura Moretuzi ikusgarritasuna emateko ekintzaren bat gauzatu.	-Emakumeen Azoka antolatzea	- A25eko ekitaldiak. Amaia Agirre bertsolariak egunari lotutako bertso saioa kudeatuko du, zehazteko dauden beste bi bertsolariarekin batera.	Irurako Ostaturako "Irakurketa txoko feministarako" liburu berriz hornitu.

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra da hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta kasuan-kasu baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

- Irura Moretuz elkartearen betebeharrak:
 - Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzeko.
 - Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
 - Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesa jasotzen duela adieraziko du.
 - Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatzeko-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuzitzea.
- Irurako Udalaren betebeharrak:
 - Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaien egitea.
 - Irura Moretuzekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena

BIGARRENA.-Diru laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Moretuz Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programaturako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:
2024ko udalaren aurrekontuaren Partida: 1.0000.480.230.00.10.

Udal honek aipaturako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Moretuz Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2025eko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2024. urtean egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo

baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, Udalak zuriketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Moretuzek Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.

Irura Moretuz Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Moretuzek genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKARIOZ ZEDITUKO DUEN LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

- **Irura Moretuz Elkartek, Udalaren jabetzako eraikin batean izango du bere egoitza fiskala. Egoitza hori San Migel Plaza 6an izango da, haurrekola gaineko erabilera anitzeko lokalean,**

eragileen txokoa deiturikoan, udalak eta elkarteak adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko.

- Udalak aipatutako espazio hori Irura Moretuz Elkarteari doan lagatuko dio bere erabilpenarako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.
- Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguru eta alarma.
- Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Irura Moretuz Elkarteak beste eragileekin batera erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.
- Irura Moretuz Elkarteak lokala utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.
- Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.
- Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten Elkarteek bere gain hartuko dute.
- Hitzarmena, ezein indemnitzazio-kopurutarako eskubiderik gabe bukatuko da.
- Udalak, interes publikoko arazoak medio, lagapena bertan behera utziko balu, esleipendunak ez luke inolako eskubiderik izango indemnitzazioa jasotzeko.

ZORTZIGARRENA.- Irura Moretuz elkarteari eta Irurako udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA.- Irura Moretuzek ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalarari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietan, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2024ko **martxoaren X etik** aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasun seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATE

IRURA MORETUZ ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

7.- IRURAKO UDALA ETA ONINTZA ABESBATZAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Kultura batzordeak, 2024ko otsailaren 21ean eginiko bileran gai hau aztertu zuela eta egongo den aldaketa bakarra egoitza sozialarena izango dela, lehen trinketea eta orain eragileen txokoa deritzona izango dela.

**ONINTZA ABESBATZA ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA**

Iruran, 2024ko Otsailaren 31an

SINATZAILEAK

Alde batetik, NEREA MENDIZABAL ORMAZABAL adinez nagusia, 72449238-C nortasun agiria duena, Iruran, kale nagusia 6 Behea C helbideratuta eta, G13719612 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Onintza Abesbatzaren izenean. (Estatutu hauek kontratu honi erantzen zaizkio 1. Zenbakiarekin)

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun nahikoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Onintza Abesbatzak hitzarmen honen diru ekarpenarekin musikarekin zerikusia duten hainbat ekintza eramango ditu aurrera, helburu hauekin:

Lehena.- Onintza Abesbatza, musikarekin zerikusia duten jardueren sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herritarren musika zaletasuna sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako musika zaletasuna sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2024ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkurak onartu du.

Irurako Udalbatza Plenoak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapitulua 12. Atalean, Dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen dira, Herri-Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedaturikoaren arabera.

Laugarrena.- Nerea Mendizabal Ormazabal andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzeko duen elkarteak ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bosgarrena.- Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikulua xedatutakoaren arabera, udalek laga ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

- lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.
- lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua.

Aurrez adierazitakoa, eta bi aldeen arteko lankidetzaren udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Onintza Abesbatza Elkartek erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea da Onintza Abesbatzak hainbat ekintza eramatea aurrera 2024 urtean, musika zaletasuna sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko: besteak beste ondorengoak ditu aurreikusita 2024 urterako:

LEKUA	EGUNA	EKINTZA
Ordizia	Martxoak 14	San Jose jaiak
Zumarraga	Apirilak 22	Residentzi batean aktuazioa
Irura	Maiatzak 17	Maiatza Kultureko emanaldia
Irura	Ekainak 8	Boise Hiriarekin Adiskidetasuna
Irura	Ekainak 23	San Juan bezperako ekitaldiak
Irura	Irailak 27	Irurako jaiak
Usurbil	Urriak 21	Residentzi batean aktuazioa
Mutriku	Azaroak 15	Jubilatuena elkarteak
Irura	Abenduak 3	Irurako ikastolan euskararen eguna
Irura	Abenduak 20	Gabonetako kontzertua
Zizurkil	Abenduak 30	Uliazpi residentzian aktuazioa
-Sortu daitezkeen beste kultur ekitaldi batzuk		

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra, hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea da. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta kasu kasu baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

• Onintza Abesbatza elkartearen betebeharrak:

- ▶ Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
- ▶ Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
- ▶ Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babes jasotzen duela adieraziko du.
- ▶ Udalarekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.
- ▶ Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuzitzea.

• **Irurako Udalaren betebeharrak:**

- ▶ Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- ▶ Onintza Abesbatzarekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Onintza Abesbatzarentzat, aipatu dituen eta herritar guztion musika zaletasuna sustatzeko interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2024ko udalaren aurrekontuaren partida: 1 0000.481.334.00.20 2024 (1382).

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Onintza Abesbatzari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2025eko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2024ko ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administrazioak edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, eta udalak diru-laguntzaren zuriak proposamena egingo du.

LAUGARRENA.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdina jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Onintza Abesbatza Elkarteak Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileren arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenetsia emango zaio euskarari.

Irura Onintza Abesbatzako ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan-hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

g) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

h) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

i) Proiektu eta memorietan sexuagatik bereizitako datuak erabiltzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

j) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

k) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta

irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

l) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- f) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- g) Hondakin-frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- h) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- i) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- j) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herri-tarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen-irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKARIOZ ZEDITUKO DUEN LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

- Onintza Abesbatza Elkartek, Udalaren jabetzako eraikin batean izango du bere egoitza fiskala. Egoitza hori San Migel Plaza 6an izango da, haurreskola gaineko erabilera anitzeko lokalean, eragileen txokoa deiturikoan, udalak eta elkarteak adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko.
- Udalak aipatutako espazio hori Onintza Abesbatza Elkarteari doan lagatuko dio bere erabilpen-erako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.
- Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguruua eta alarma.
- Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Onintza Abesbatza Elkartek beste eragileekin batera erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.
- Onintza Abesbatza Elkartek lokala utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.
- Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.
- Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten elkarteek bere gain hartuko dute.
- Hitzarmena, ezein indemnizazio-kopurutarako eskubiderik gabe bukatuko da.

ZORTZIGARRENA.- Onintza Abesbatzari eta Irurako Udalarari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. Artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA.- Onintza Abesbatzak ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalarari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek, bere horretan eusten diete beren ahalmenei, eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horiexek dira, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak bete beharko dituzte 2023ko martxoaren 31tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasunaren seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.
Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATEA

ONINTZA ABESBATZA ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

Kultura teknikaria
(Alex Lasa)

O.E.

(Idoia Garaialde)
Kultura batzordeburua

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

8.- MOZIOA: LAB: “HAURREK ESKUBIDEA DUTE LEHEN HAURTZAROKO HEZKUNTZA ETA ZAIN-TZA ESKURAGARRIAK ETA KALITATE ONEKOAK IZATEKO”

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du mozio hau LAB sindikatuak sartu zuela baina gaur arratsaldean Idazkaritza posta elektronikoko bidez mezu bat jaso dela mozioa bertan behera uzten zutela, beraz gai ordenetik aterako du gaia eta ez da tratatuko.



Dokumentuen aurkezpen agiria

Erregistroaren datuak

Erregistro Zkia:	2024-0000000134
Erregistro mota:	Sarrera
Aurkezpen data:	2024/02/05 09:23
Gala:	Mozio eskaera hauteskolarako.
Interesduna:	34104193T ZEBERIO BALDA ITZIAR
Ordezkaritza:	
Jasotzailea:	IDAZKARITZA

Erantsitako dokumentuak

Izena	Egiaztapen kode segurua (EKS)	Aurkeztuta
NAN	SIER7d9bc2db-93e7-4279-9428-7c2382e02d67	Bal
ESKAERA	SIER482c7457-9c1b-4bf3-a8da-475257d3e7cc	Bal
Erregistroko Eskaria	SIERda49431e-ad85-4f4e-9661-671d6ca78253	Bal

SIER7d9bc2db-93e7-4279-9428-7c2382e02d67

Herrit Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen artikuluan 2015 Legeak 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, agiriaren aurkezpena egiaztatzeaz gain degokionean luzatzen da jasotze-agiri hau.

BESTE PERTSONA BATEN IZENEAN ADMINISTRAZIOAREKIN ARITZEKO BAIMENA
AUTORIZACION PARA ACTUAR EN NOMBRE DE OTRA PERSONA ANTE AL ADMINISTRACION

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN INTERESDUNAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA QUE OTORGA LA REPRESENTACION:			
IZEN-ABIZENAK edo SOZIJETATE-IZENA/ NOMBRE Y APELLIDOS ó RAZÓN SOCIAL		NA zk. / D.N.I.-N.I.F.	
JAKER BERISTAIN URIZABARRENA		34 09 035910	
SEXUA / SEXO <input type="checkbox"/> Emakumezkoa / Mujer <input checked="" type="checkbox"/> Gizonezkoa / Hombre <input type="checkbox"/> Ez bitarra / No binario			
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN SAN BARS 7 Belea			
HERRIA / POBLACIÓN	POSTA-KODEA / C.P.	TELEFONOA / Teléfono:	FAXA / Fax:
DONOSTIA	20013	674 09 45 43	
POSTA ELEKTRONIKOA / E-MAIL			

ORDEZKARITZA JASOTZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA A LA QUE SE OTORGA LA REPRESENTACION:			
IZEN-ABIZENAK edo SOZIJETATE-IZENA/ NOMBRE Y APELLIDOS ó RAZÓN SOCIAL		NA zk. / D.N.I.-N.I.F.	
ITZIAN ZEBERIO BALDA		34 104 1981	
SEXUA / SEXO <input checked="" type="checkbox"/> Emakumezkoa / Mujer <input type="checkbox"/> Gizonezkoa / Hombre <input type="checkbox"/> Ez bitarra / No binario			
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN SAN BARS 7 Belea			
HERRIA / POBLACIÓN	POSTA-KODEA / C.P.	TELEFONOA / Teléfono:	FAXA / Fax:
DONOSTIA	20013	674 09 45 43	
POSTA ELEKTRONIKOA / E-MAIL			

JARRI "x" ORDEZKARITZA MOTA AUKERATZEKO / SEÑALE CON UNA "x" EL TIPO DE REPRESENTACION ELEGIDO	
<input type="checkbox"/>	Apud acta elektronikoa / Apud acta electrónico
<input type="checkbox"/>	Apud acta presentziala / Apud acta presencial
<input type="checkbox"/>	Notario ahalordea / Poder notarial
<input type="checkbox"/>	Idazki legitimatua / Escrito legitimador
<input type="checkbox"/>	Erakunde akordioa / Acuerdo de institución

HAUTATU IZAPIDE MOTA / SELECCIONE EL TIPO DE TRÁMITE	
<input type="checkbox"/>	Edozein jarduera edozein Administrazio zein organismoaren aurrean / Cualquier actuación ante cualquier Administración u Organismo
<input type="checkbox"/>	Edozein jarduera Administrazio zein organismo jakin baten aurrean / Cualquier actuación ante una Administración u Organismo concreto
	Zehaztu Administrazio edo Organismoa / Concrete Administración u Organismo .
<input checked="" type="checkbox"/>	Ahalordean zehaztutako izapideak bakar-bakarrik egiteko / Únicamente para la realización de los trámites especificados en el poder.



**Irurako
udala**



**Irurako
udala**

HAUTATU EPEA / SELECCIONE EL PLAZO	
<input type="checkbox"/>	Mugagabea / Indefinido (5 urte arte / Hasta 5 años)
<input checked="" type="checkbox"/>	Mugatua / Limitado
Zehaztu epea / Concrete plazo: 2024-02-5	

Iruran,
En Irura,

ORDEZKARITZA EMATEN DUEN PERTSONA / LA PERSONA QUE OTORGA LA REPRESENTACIÓN	ORDEZKARITZA EMATEN ZAION PERTSONA / LA PERSONA A LA QUE SE OTORGA LA REPRESENTACION

DONOSTIA
T.F. 943 693 40

AGIRIA sinatu aurretik, irakurri DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA		Antes de firmar el DOCUMENTO, debe leer la INFORMACION BASICA SOBRE PROTECCION DE DATOS	
Tratamenduaren xedea	Ahalorde hori Irurako Udalaren ahalordetze Erregistro Elektronikokoan inskribatuko da.	Finalidad del tratamiento	Este poder se inscribirá en el Registro Electrónico de Apoderamiento del Ayuntamiento de Irura.
Tratamenduaren legitimazioa zein lege-oinarria	Interes publikoa xede duen misioa betetzea edo arduradunari emandako botere publikoak egikaritzea, lege maila duen arau batek emandako eskumenean oinarritutakoak: Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikulua.	Legitimación o base jurídica del tratamiento	Cumplimiento de una misión realizada en interés público o ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable, por derivar de una competencia atribuida por una norma con rango de ley: artículo 6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.
Informazioa kontserbatzeko epea zein irizpideak	Gehieneko epea: 5 urte	Plazo o criterios de conservación de la información	Plazo máximo: 5 años.
Profilak egiteko edo erabaki automatizatutako hartzeko asmoa	Ez	Existencia de decisiones automatizadas o elaboración de perfiles	No.
Datuen lagapena	Edozein administraziori eta lege zuzeneko beste edozein lagapen.	Cesión de datos	Cualquier Administración, Juzgados y Tribunales y otras cesiones que estén previstas legalmente.
Hirugarren herrialdeetara datu-transferentziak	Ez, legeko betebeharra izan ezik.	Transferencia de datos a terceros países	No, salvo obligación legal.
Eskubideak: (Mugatuta daude, ingurumeneko eta hirigintzako diziplinako prozedurak oztopa ditzaketan neurrian)	1. Datuetan sartzeko eskatzeko eskubidea. 2. Datuak zuzentzeko, ezerezteko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubideak. 3. Tratamendua murriztea eskatzeko eskubidea. 4. Datuak eramateko eskubidea. 5. Kontrol agintarien aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea.	Derechos: (Están limitados en cuanto que son susceptibles de impedir el desarrollo de los procedimientos de control de disciplina medioambiental y urbanística)	1. Derecho a solicitar el acceso a los datos. 2. Derecho a solicitar la rectificación, supresión o de oposición al tratamiento. 3. Derecho a solicitar la limitación de su tratamiento. 4. Derecho a la portabilidad de los datos. 5. Derecho a presentar reclamación ante las autoridades de control.

SIBR482C7457-9c1b-4b63-a8da-475257d3e70c

Mozioa bertan behera geratu da.

LABeko mozioa bertan behera uzteko eskaera

haurreskolak.gip@lab.eus <haurreskolak.gip@lab.eus>

Mar 27/02/2024 16:17

Para:IRURA <irura.irura@haurreskolak.eus>;Irantzu Arrizabalaga Gainza. Irurako Udala <idazkaritza@irura.eus>

📎 1 archivos adjuntos (28 KB)

DOC050224-05022024112201.pdf;

Kaixo,

Ni Itziar Zeberio Balda 34104193T NANA duna LAB sindikatuaren izenean atxikituta bidaltzen dudana mozio eskaera egin nuen. Idatzi honen bitartez eskaera bertan behera uztea eskatzen dizuet.

Aldez aurretik, mila esker,

Itziar.

--

**09.-MOZIOA: EH BILDU: “SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ
DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA”**

Alkateak mozioa irakurri du.



SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, Saharar Herriak Saharako Estatuaren (SEAD) sorreraren berrogeita zortzigarren urteurrena ospatuko du, askapenerako eta erabateko subiranotasunerako bere sorreraren eta eraikuntzaren faseak arrakastaz gainditu ondoren.

Berrogeita zortzi urte hauetan, Saharar Herriak nortasun nazional propioa sendotzea lortu du sakrifizioei eta batasun nazionalari esker. Saharar guztiak harro sentitu behar dira bere erakunde nazionalen funtzionamenduaz, exiloaren baldintza gogorrak eta baliabiderik eza gorabehera.

Saharar Herria inoiz baino lotuago dago autodeterminaziorako eta independentziarako dituen eskubide legitimoei, eta Marokoren aurkako borrokarekin jarraituko du, potentzia okupatzailea baita, Mendebaldeko Saharako errepresioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren arduraduna.

Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioari dagokionez, Luxenburgon egoitza duen Europako Justizia Auzitegiaren epaiak albiste eta funtsezko aurrerapen gisa hartu zirela egiaztatu da; izan ere, epai horien arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna ez dute onartzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezta, oro har, NBEk ere ". Horregatik, beharrezkoa da Espainiak eta Europar Batasunak Fronte Polisarioarekin negoziatzen hastea, merkataritza- eta ekonomia-harreman egokiak ezartzeko.

Horregatik guztiagatik,

Berriz ere adierazi nahi dugu ez gaudela ados Espainiako Gobernuko presidenteari Mendebaldeko Saharari buruz egindako erabateko aldaketa historikoarekin.

ESKATZEN DIEGU Nazio Batuei, lehenbailehen, gatazka honen konponbide justu eta behin betikoa sustatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar baita amaitu gabeko deskolonizazio-prozesua amaitzeko, erreferendum aske eta gardena eginez.

BERRESTEN dugu Fronte Polisarioa Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa dela,

EXIJITZEN diogu Marokori preso politiko eta kontzientzia saharar guztiak berehala aska ditzala, eta bertan behera utz ditzala bere espetxeetako eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen urraketak.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioak (MINURSO) bere eginkizunak zabaltzea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen kontrola eta jarraipena egin dezan.

itor Jesús Apellániz, 9 bajo • 01008 Vitoria-Gasteiz • Araba/Álava • +34 945 252 069 • idazkaritza.sahara.euskadi@gmail.com • polisarioeuskadi.org

EUSKADIKO SAHARAR
ORDEZKARITZA



DELEGACIÓN SAHARAU
EN EUSKADI

ESKATZEN DIOGU Espainiako Gobernuari estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik; eta Nazio Batuen Mendebaldeko Sahararako Bake Plana betez, konponbide justu eta behin betikoa lortzeko behar diren ekimen politikoak sustatzea.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak espoliatzen dituela.

ESKATZEN DIEGU Mendebaldeko Sahararen jarduten duten enpresei errespetatzea baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorreko eskubidea eta lurralde okupatu bateko baliabide naturalen ustiapenari aplikatzea dakizkiokeen nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak.

GOGORATZEN DUGU Marokok ez duela inola ere Mendebaldeko Sahararen gaineko subiranotasunik, eta Europar Batasunak ezin duela akordiorik sinatu Marokorekin Fronte Polisarioaren baimenik gabe. Gainera, EB behartuta dago printzipio horren eta arau horien urraketatik ondorioztatzen den legez kontrako egoera oro salatzea.

IRAGARTZEN DUGU SEADen aldarrikapenaren 48. urteurrena dela eta, euskal erakunde eta entitateetako ordezkariak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara joango direla Saharar Herriaren bidezko borrokarekiko konpromisoa berritzeko.

Onartutako adierazpenak helbide hauetara bidaltzea proposatzen dizuegu:

a) ESPAINIAKO ERREGE ETXEA

Zarzuela jauregia. Pardo errepidea z.g. 28071 Madril

b) ESPAINIAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZA

Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, z/g. 28071 Madril

**c) KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO
MINISTERIOA**

Plaza del Marqués de Salamanca, 8. 28006 Madril

d) EUROPAKO BATZORDEA

Josep Borrell Fontelles

Alto representante de la Unión para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad Rue
de la Loi. Wetstraat 170. B-1049 Bruxelles/Brussel. Belgique

e) FRONTE POLISAIORRAREN ESPAINIARAKO ORDEZKARITZA

Principe de Vergara kalea, 83, 1.a, 28006 Madril

f) FRONTE POLISARIOAREN EUSKADIKO ORDEZKARITZA

Jesus Apellaniz margolaria, 9 - 01008 Vitoria-Gasteiz

BOZKETA: AHO BATEZ ONARTU DA. 9 ALDE (6 Eh Bildu 3 EAJ/PNV)

10.- MOZIOA: EH BILDU: “M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”.

Noelia zinegotziak hartu du hitza eta mozioa irakurri du.



Irurako Udala

Irurako Udala

No./ur 2024-224

Data / Data 2024/02/22

OROKORRA / GENERAL

Sarrera / Entrada

Dokumentuen aurkezpen agiria

Erregistroaren datuak

Erregistro Zkia:	2024-00000000224
Erregistro mota:	Sarrera
Aurkezpen data:	2024/02/22 12:51
Gala:	Internet bidezko erregistro: M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
Interesduna:	44142319Y MURUA MAGUSO GORKA
Ordezkaria:	
Jasotzailea:	Zerbitzu Telematikoak

Erantsitako dokumentuak

Izena	Egiztapen kode segurua (EKS)	Aurkeztuta
M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA	SIER56f52e32-780d-4589-a903-6541d5ceb42a	Bai

Azalpenak edota eskaera

M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Hiri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urtararen 1eko 39/2015 Legeak 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, agiriaren aurkezpena egiaztatzeari dagokionean lortzen da jasoze-agiri hau.



EKS | CSV: SIER01997c52-b2a3-4b9d-aae1-fcf9289768c1

¿Nahi duzue dokumentu hau zuzenean zure ordenagailuaren bidez ikusi? Hona hemen klikatu: <https://sis1.gizatiak.euzkadi.eus/0411>
¿Quieres la copia de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://sis1.gizatiak.euzkadi.eus/0411>

M8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Baina ez dira atzokoak krisi honi erantzun nahi dioten mugimendu eta ekimenak. Hala ere nabarmendu nahi dugu, pasa den Azaroan, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa ardatz, Euskal Herrian, Greba Feminista Orokorra aitzindaria izan digula. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da. Gure herrian ere lanketa sakona egin genuen eta bi dimentsiotan ardaztu ziren aldarrikapenak. Alde batetik eremu pribatuan, emakumeek familia eremuan bereziki egindako lan ordaindugabea ikusaraziz eta bestetik feminizatutako eremuetan egindako lan ordaindu prekariora salatuz.

Argi geratu zen herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gainean erortzen dela zaintzaren lan karga gehiena. Honek dakarren ondorioetako bat, feminismoetatik izendatutako lanaldi bikoitz edo hirukoitzak dira, beste gauza batzuetan emakumeei haien denbora eskaintzeko aukera kenduz, izan lana ordaindua, militantzia politiko soziala etab. Hau da, boterea zentzu zabalean eta gaitasun politikoak sortzen dituzten alor horietan guztietan egoteko aukera murrizten zaie emakumeei. Honen eraginez, denboraren banaketa desparekoak gertatzen jarraitzen dute eta emakumeek zaintzen ematen duten denbora horretan lan hauetatik ardurarik hartzen ez duten gizonak boterea metatzen jarraitzen dute.

Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeak boteretzera ere eraman beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan historikoki kokatua izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi Gobernu Ona esan zaio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzea datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehentasunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eraman nahi dugun prozesu subiranistan.

Garrantzia eman behar diogu publiko eta komunitarioaren arteko harremanei, elkarrekin sortzen diren bidegurutze berri eta ardura partekatuei. Ezin dugu ahaztu komunitatea ez dela norbanakoen batuketa soil bat, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituzten eta bizi dituzten izaki taldeen multzoa baizik. Komuna kudeatzeko erantzun-kidetasuna behar dugu beraz eta horretarako argi izan behar dugu politika bizitzaren eremu guztietan artikulatzen dela. Beraz, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoak apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Beharrian nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Irurako Udalak honako hau erabaki du:

- Mugimendu Feministarekin batera Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.
- Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian/herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.
- Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.
- Greba Feminista Orokorren baitan, Irurako Udaltza plenoan hartutako konpromisoak berrestea, hau da:
 - 1- Zaintzaren inguruko diagnostikoa egitea
 - 2- Zaintzaren inguruko ekimenak martxan jartzea

IRURAKO EHBILDU

2024ko otsailaren 27an

Gorka Sagarna EAJ-PNVko zinegotziak Alkateari hitza eskatu eta beraien taldea abstenitu egingo dela adierazi du Martxoaren 8ko aldarrikapen bat izan beharrean greba feminista eta zaintzaren inguruko irakurketa politiko bat dela uste dutelako. Eta horregatik aurkeztu dute ondoren irakurriko dute Eudelen adierazpena, uste dutelako kontsentsu gehiago duela eta erakunde publiko gehiago eta erakunde bezala indartsuagoa dela uste dutelako.

Aldi berean, berriz ere egiten da sistema publikoaren aldeko defentsa edo aldarrikapena, uste dugu udal honek ere martxan jarri dezakela bere zerbitzuak publikatuz horrela iruditzen bada, besteak beste, etxez-etxeko zerbitzua eta martxan jarri daitezkeen ekimen berriak ere, udalak dituen eskumenen artean.

Eta aldi berean, plazaratu nahi genuen Udal gobernua ere zaintza ekimenean partehartzera, Aldundiak martxan jarri zuen egitasmoa da. Jadanik 14 udalerrri daude partehartzen alderdi desberdinetakoak.

Jarraian Alkateak bozketara jo du.

BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (EH Bildu) eta 3 ABSTENTZIO BOZKAK (EAJ/PNV) MOZIOA ONARTU DA.

11.- MOZIOA: EAJ/PNV: “M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”.

Gorka Sagarnak (EAJ/PNV) **MOZIO OSAGARRIA** sartu du “**MARTXOAREN 8RAKO EUDELEN ADIERAZPEN A**” eta Ana Leundak irakurri du.

Irakurtzen hasi aurretik Gorka Sagarnak adierazi du ez dela kontramozio bat, baizik eta osagarria.



Irurako Udala

Irurako Udala

Doc./No. 2024-239

Data / Fecha 2024/02/26

Sarrera / Entrada

OROKORRA / GENERAL

Dokumentuen aurkezpen agiria / Justificante de presentación de documentos

Erregistroaren datuak / Datos de registro

Erregistro Zkia / Nº de registro:	2024-00000000239
Erregistro mota / Tipo de registro:	Sarrera / Entrada
Aurkezpen data / Fecha presentación:	26/02/2024 17:17
Gaia / Asunto:	Internet bidezko erregistroa: M8ko adierazpena / Registro por internet: M8ko adierazpena
Interesduna / Interesado:	72505198K SAGARNA LARRAÑAGA GORKA
Ordezkaria / Representante:	
Jasotzailea / Receptor:	Zerbitzu Telematikoak / Zerbitzu Telematikoak

Erantsitako dokumentuak / Documentos adjuntados

Izena / Nombre	Egiaztapen kode segurua(EKS)/Código Seguro Verificación (CSV)	Aurkeztuta / Presentado
MARTXOAK 8 - EUDEL 2024.docx / MARTXOAK 8 - EUDEL 2024.docx	SIER97boef75-e0b7-49bc-babd-bb0f119db01	Bai / SI

Azalpenak edota eskaera / Expone y/o solicita

Irurako EAJ-PNV taldeak Martxoaren 8rako Eudelen adierazpena aurkezten du mozio gisa.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, agiriaren aurkezpena egiaztatzeari dagokionean luzatzen da jasotze-agiri hau.

De conformidad con lo establecido en el artículo 16.3 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se extiende el presente recibo a efectos de acreditación de presentación de documentos.



EKS | CSV: **SIER2412499f-c2ca-4838-952c-c3de4dc825bc**

Egiaztatu dokumentu honen oinarria eta sinadura buruen QR kodean sartuz: <http://url.gipuzkoa.eus/90-04616>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <http://url.gipuzkoa.eus/90-04616>



2024ko martxoaren 8rako EUDELeko Adierazpena

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolekti-boetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatu eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkututzen ari da, hala nola prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealtatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Irurako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketaguneak** babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea-ikuspegi interseksionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikokoak** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealtatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeke** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea**.

Irakurketaren ondoren, Noelia zinegotziak hartu du hitza eta zera adierazi du:

Gure ustez, zuek mozio honek ez dio erantzuten ez zaintzen sistemari buruzko analisiari, ez Gobernantza ereduaren analisiari. Aurtengo ildoari erreparatuz, genealogiez, memoriaz eta egun adineko emakumeen errealitate ikustaraztea egokia dela uste dugu, baina espazio batetik zehaztutako ildo eta kanpaina batean sartzea ez dugu egoki ikusten, bereziki, emakume pentsionisten egoera sozioekonomikoaz hitz egitean EH Bildutik mahaigaineratu ditugun proposamenei behin eta berriro ezetz esan zaigunean. EH Bilduren ildoak Zaintza publiko komunitarioa garatzeko ezinbestekoa den Gobernantza Feministaren gainera aritzea izango da eta horregatik gu ere abstenitu egingo gara.

BOZKETA.- ABSTENTZIO BOZKAK 6 (EH Bildu) eta ALDEKO BOZKAK 3 (EAJ/PNV) MOZIOA ONARTU DA

12.-GALDE-ERREGUAK

EAJ/PNVko Begoñak hartu du hitza eta adierazi du, 2024/31.dekretua 2024-2034 herritartasunaren inguruko partehartze prozesuko EMUN enpresarekin egingo den lanaren inguruan, bileretan eta partehartzea gustatuko litzaikeela, oso garrantzitsua baita. Bere esperientzia kontatu du, Tolosako Udalean ere egin zela eta garrantzitsua dela herriak etorkizunean hartuko duen ibilbidea jarraitzeko. Prozesu partearzailea nola izango den, dinamika, zer nola aztertuko diren gauzak...

Alkateak erantzun du, Emunekin oraindik forma ematen ari direla, hezkuntza garrantzitsua dela eta baita ere garrantzitsua dela diagnostikoa bat egitea eta herritarren eta egunerokotasunean partehartzen ez duten herritar horien ahotsa jasotzea. Beraz partehartze batzordean eta prozesuan partehartu ahal izango duzue.

Bukatzeko, Alkateak ohar pare bat eman ditu:

-Udaletxearen eraberritzearen inagurazio eta ate irekiak martxoak 1 ostiralean izango dela eta zinegotzi izandako guztiak gonbidatuta daudela.

-Aste honetan udaletxeko idazkaritzan lapurreta izan dela eta kaxa fuertea eraman dutela, bertan dirurik ez zegoela.

Idazkariak Martxoak 26, asteartean hauteskundeetako mahaiko zozketa egiteko data izendatu du hasiera batean behintzat.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:30etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.